

FEDERIKO GARRALDA
AURRENDAKO DOSTATZIA, DA OSASUNA BILATZIA
Otsagabia, 1926

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:
<http://klasikoak.armiarma.com>
Iruñeko Udalaren literatur lehiaketak (1882-1928), Alberto Barandiaran. Iruñeko Udala,
1996.
Bertsio informatiko honen egilea:
Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego
Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka,
nahi bezala erreproduzi daitezke.

AURRENDAKO DOSTATZIA, DA OSASUNA BILATZIA

Otsagabia, 1926

Lan konekin xakin arazi nai dut, Otxagabiko euskarazko dostak
SARAZAITZUKO EUSKARAZ

MIRRIX-MARRAX

Mirrix-marraxarekin asi biar dut, lemiziko aurren dostara baita.

Txikin drenian aurrak, troxuan daudenian orañik, lepotik tilinton ermanez murtxatzeko kirkilara, eta urranto ikusirik bere ezpañetan lemiziko barrak, aita eta amak, anai eta arrebak balimadie, asten dra aurren dostatzra mirrix-marraxiala. Kuen altzuetan aurrak ttonto eseririk, urranduz betartiak, aurren eskuak arrepatrik bi ukaraietarik xabal xabala igaretzen tie goitirik apal bi betarte aldetarik, erranez aldi oro itz bat kala:

Mirrix-marrax
Non izan
Amorzianian
Zer eman
Txitxi eta papa
Non ene partia

Graitzu pean
Graitzua non
Suak erre
Sua non
Urak il
Ura non

Oiluak edan
Oilua non
Arroltze erruten
Arroltzia non
Apezak xan
Apeza non

Sarria ku... kula kulan meza ematen

Uyuka erraten dra azken itzak. Aurrek, uyuetra egiten die barra karkila andiak erranez, berriz... Kau aitrik aita eta amek gogotik egiten die berriz mirrix-marrax, aurren dostatziagatik, eta aurren kilikor goxua betartian artziagatik.

ANDRE SALTUA

Karrikan bildrik bizpur mutiko uyuz erraten die: Andre sal... to, andre sal... to.

Guzien artian gurtzen da bat, apalduz burua eta soñigiak. Beriala berze mutiko bat azpiak zabalduz eta giltzurrun gañetan eskuak eseriz gañetik igaretzen da, gurtuz gisa berian berexita zortzi edo amar urrats. Irurgarren mutiko batek berdin egiten du, lemeziko eta bigarren mutikuen gañetik beriala gurtuz berexirik zati bera. Laurgarren mutiko bat igaretzen da gurtrik dauden mutiko gañetarik, gisa berian gurtuz berzien gisa.

Dauden lagun guziak igareta bata berzien gañetik, txutitzen da gurtu den lemezikua, igarez berze guzien gañetik gurtuz berriz, kala egonez bata berzian gañetik igaretzen, akaitu edo akartu artio.

Berze andre saltuala dostatzeko gisa bat ere bada.

Gurtzen da mutiko bat, eta kala nola berze andre saltuan ezte baizik mutikoek bata berzian gañetik igaretzen, kontan igaretzian gañetik eskuak giltzurruntan esertzian egiten die boinara eskuan ermanez, eta giltzurrun gañan utziz.

Mutiko zomaitek boinara uztian, erortzen bazayo lurrial, edo berze zomait, galtzen du eta baratzen axto, eta orduan konen gañetik igaretzen dra lagunak boinara utziz giltzurrun gañetan, ezpadu berze zomait lagunek galtzen.

Lagun daudenak dostan igare badra boinak utziz, asten dra berriz gañetik igaretzra, ordia orai bakotxak bere boinara artuz.

Ordia mutiko bakotxak bere boinara artzian, erortzen bazayo lurrial, edo berze bat egotzen badu, galtzen du, eta axto baratzen da, berriz asteko lemezikotik dostua, ezpadra lenik akaitu edo akartu.

ARDOLA

Bizpur lagun bildrik karrikan, mutiko edo nexkato, bakotxak berearen artian, uyuz erraten die: Ardolala Ardola... la.

Andienaren inguru esertzen dra lagunak, lemezikoak erranez eri batekin onkituz berzien bularrak: *Ardola, mardola, kinkuran kin, portera, ziria, portera, min, xedra, medra, kirun, karun, plet*.

Azken onkitua erranan azken itzarekin da arrepazale, geldi baratrik kau ikusten nola lagunak laister egiten die uyuka erranez: Pilladora, arrepazale... Arrepazalia begira baratzen da naiez ikusi nork laister gutiago egiten du, karen atzian fateko, asten da lagunak atzian lasterka arreatuz noiz bait lagun bat.

Arrepazalia eta arreatua esku bana artirik, asten dra berriz lagunak atzian berze zomait arreatu artio. Berze zomait arreatuta eta berdin bi lagunak esku bat emanik, faten dra berriz lagunak atzian arreatu artio berze bat, eta kala azkenian ari luze bat eginez aurrez, arreatzen die karrika zabaldun guzia, laisterka uyuz, barraz eta izerdi, kortako nexkatuak.

BITXITXI

Kau ere da mutiko eta nexkato dosta, berexirik ere beren artian.

Biltzen dra bizpur lagun eta bi saldotan berexen dra, nasiz saldo batian ongi eta gaizki, edo anitz eta guti laxter egiten dienek.

Karriketan edo ibiltokietan dostatzen dra, eseririk saldo bakotxa bere lekuan izanez kau etse parete bat.

Kala aurren saldo bakotxa bere lekuan, asten dra elkitzra bere lekuetarik uyuz eta erranez batek berzier: Bi... Bi... Bitxitxi.

Saldoko batek arreatzen badu berzeko bat ermaten du bere lekuala, eta kan baratzen da ezin mogituz bere saldoko batek onkitu artio eskuaz, agituz onkitzra faten denian lagun bat onkituta eta eskapatu barrian, erortzen da ere baratuz berzian saitsian ezin mogituz.

Ezin mogituz gabe dauden kuek, deitzen tie bere laguner agituz ikusi duguna edo onkitzen tiela igarez bere lekuala. Agitzen da zomait aldiz bi lekuetan badaudela mutiko ezin mogituz, agituz ere saldo bat dela berzia meño azkarrago, bukatuz dostara saldo batekuek berzekuak arreatuz.

KAPUTXANGA

Kaputxangala eztra dostatzen mutikoak baizik.

Ilera batian dauden lagunak, buruak eta errayak gurtrik egozten tie boinak ez altziniala, ixtarte artetik ipurdi gibletik eta errayen eta buru gañetik altzina.

Laburrago baratu den boinara galtzen du, obeki erranik aren nausiak. Berze mutikuak asten dra laisterka eta ostikoka, ermanez boinara Jaungoikoak daki nora artio. Anitz badra mutikuak egoten dra ostikoka eta lasterka nai dien artio, agituz zomait aldiz azkar balimada boinan nausia, bulkatuz eta lurrial a egotziz mutiko, arreatzen duela bere boinara.

Kaputxangala dostatzeko bilatzen die mutikuek leku belardun, ordia kalarik ere borz akar aitzen tie bere amenganik.

TXANTXA BIXKOR

Abenduko eta mutiko dosta da kau: Abenduan erri kontan artxaun anitz baita, erribrala saunsten drenak ardi salduekin, uzten die etserako artxarki egiteko ari, auntz, ardi eta aker.

Arres bat iltzen dienian beti egiten die abari bat oin-buruekin. Abari kontan mutikuek berexen die aztaparreko eta aztapar gañeko ezurak, deitrik txantxa bixkor. Aragia ongi berexirik eta suala eseririk, baratzen dra xuri-xuria, bilduz kala mutikuek sakoletira.

Xuntatrik bida edo irur mutiko denbra kaitan, erraten die: Guazen txantxa bixkorriala? Batek esertzen du txantxa bixkor bat parete saitsian, berziak berze bat kuarta baten dina edo kala berexirik karrika aldiala, eta irurgarrenak gisa berian.

Amar edo amabi urrats berexirik mutikoak karrika aldiala, egozten tu xokariak (len artxarkuak) urrantzra parete saitsean dagonari. Urranago baratu dena da lemezikua. Zertako? Koxkatzeko bere xokariarekin lurrian dagon txantxa bixkor bat, eta koxkatzen

badu irabazi du bat, segituz koxkatzen, eta ezpadu koxkatzen, egozten du xokaria berze lagunak.

Koxkatzra egozteko berexten dra xokaria baratzen den lekutik, bida edo irur urrats. Ikusten zie nola agi daiken, mutiko batek berzier irabaz dokela yago edo gutiago txantxa bixkor, eta nola fan daizke zakuak aldizka errotala, izanez egi andi bat ardura agitrik, zer txantxa bixkor batengatik akar andi eder agitzen drela zomait aldiz.

BASAN TUTA

Mutiko dosta da kau ere: Basan tutak egiteko, mutikuek lenik biltzen die berek gaia, izanez kau zamukara.

Bildrik gaia, ebakitzen die zati bat kuarta baten dina edo gutixago luzetarzunez, eta amar milimetro edo gexago loditarzunez.

Berexirik zati bat kala, gentzen dakoye mamia, eginez beriala txostaka bat luzexago ezik zamuka zatia, eta meago ongi igare dadien mami lekutik, utziz txostakari gibleko aldian irur edo laur eriren dina lodixago, eztadien mami lekutik igare. Basan tutara eginik dago: Orai bi ixtupa pixka ongi bustirik, bata igaretzen da mamian lekutik, bulkatuz txostakarekin utziz bazter batian. Berze ixtupa pixkara uzten da berze bazterrian barnaxka, eta txostaka pixka bat sartrik, zamukara ongi artrik ezkerreko eskuaz, ematen die eskuieko eskuaz panpa bat txostakari egotziz urrun lemeziko ixtupa pixkara, tiro bat egotziz, eta bigarren ixtupara fanez berze bazterrialala.

Erri den ixtupa pixkara sartzen die berriz, eta berze panpa batekin begira baratzen dra mutikoak ikusiz nora artio fan den balara, eta zer arroitu andia egin duen. Kala, mutikuak bere artian dostatzen dra, akartuz noren basan tutak urrunago egozten dien balak, eta zoinek arroitu yago egiten duen.

TXULUBITA

Bedatseko aspaldi batez, ez die erri kontako mutikuek berze dostarik, baizik txulubita egin, eta txustuka karriketarik eabil.

Erri bazterretra faten dra mutikoak txulubita gai bila, izanez lizarra eta zumia onik, lemezikua obeago. Lenik txetetzen die gaia eta anitz izerdi balimadago, ebakitzen die zatixko bat irur edo laur eriren dina, obeki erranik luzetarzun kontan egiten die axal inguruan orraxtun bat, berexiz txulubita izan biar duna berze gaitetik. Orai, axala elkitzeko esertzen die gaia belaun baten gañan, eta nabla gidarrarekin xotuz, erraten die:

Txulubitario, konpletario, barberaren muzkerra,
dotoriaren ezteya, ttu ttu bi, ttu ttu bi, kuplapean,
sar adi, ezin elkiz, ler adi, eta zapartadi.

Erran kau bukatuta, eskuarekin biurtzen die axala, ezta beti lemezikuan elkitzen, xurkua eginta eginik dago txulubitarra, ordia ezpada axala elkitzen, berriz erraten die txulubitarioa.

FURRUNDESKO

Bada urtian denbra bat, mutiko guziak egoten drela abarrikotrik furrundesko egiten, eta furrundeskuala dostatzen.

Kontako egiten die txostaka bat irur edo laur eri luzetazunez, eta erdian oxke bat inguru. Oxke kontan esertzen die bizpur ari biurtrik, izanez bi aldetra ari gexago.

Bi ari bazterretan, bi eri beratzak sartrik, eta berze erier bizpur aldiz mogituz, eta barne eta kanpo mogituz eri beratzak, iduriz txostakara txorrosteko arri bat eginez fur... fur... fur... xokatuz mutikuak beren artian furrundeskuak akartzra, zoinek arroitu yago egiten duen.

SUPAZTERREKO DOSTAK

ALARDINA MOXKORDINA

Alardinala dostatzen dra mutikuak eta nexkatuak, nasirik eta berexirik. Aur batek altxatzen du esku batian gauza bat, izan daike urrutx, arto, ilar etc. Bi eskuak ertsirik, esertzen du berzian betartian altzinian, erranez konek eri batez onkituz bi eskuak aldizka.

Alardina, moxkordina, kontan, dela, kontan.

Nai du erran zointan dago gauzara, eskuan baratzen den eria azken itza erratian. Gauzara daukenak idikitzen du eskua, kartan badago irabazi du dagona, eta trukutzen dra, ordie ezpadu eman gauzara dagon eskuarekin, aur berak esertzen du berriz zerbait altxatrik esku batian, berziak errateko, alardina moxkordina etc.

ARRAI EDO TXIPA

Bi mutikuek edo bi nexkatuek erraten die: Arrai edo txipa? Urranduz bien ezpañak, asten dra butz egitra bata berziari indar guziarekin, ikusiz nola maxelak azitzen zaien, agituz beti agitzen dena, bati barrak ematen dakola, eta nola barraz ezpaitake butzik egin, berziak irabazten duela baratuz arrai, eta lemeziko barra egin duenak txipa.

AMAR AMAR ALKATE

Supazterreko dosta kau da mutikuena eta nexkatuena, nasirik eta berexirik, zeren supazterretan dostatzen dra anai arrebak, kosin eta adixkideak.

Urran-urrana eseririk dostatu biar dien lagunek, batek esertzen du esku bat xabaldrik eri kozkorrak gañeko aldiala, belaun baten gañan erranez, bat. Lagun batek gisa berian esertzen du esku bat lagunak eskuak gañan erranez, bida. Irurgarren lagun batek berdin esertzen du eskua erranez, irur.

Apaleko eskua elkirik eta berzien gañan eseririk, erraten du, laur. Pean baratu dena elkirik eta gañan eseririk erraten du, borz. Kala amarriala eldu artio, eta amargarrenak

erraten du: amar, amar alkate. Berantzut. Laguner begira erraten du: Eginen zia nik manatzen dutana? Onik bada bai, ordia gaxto balimada ez. Eta orai asten dra alkatian manazioak, eta barrak.

Bati erraten du: Igan zak idian txintxa bat, eta eser zak gatuari lepotik. Berzeari: Urtux adi, eta eman zkik bizpur urrats urtuxirik elur gañetik. Berziari nai duena eta kala, bein baizik bakotxari, berriz asteko eskuekin alkate egitra.

Berze lagun bat elkitzen bada alkate, eta fan den alkatiak zomait gauza txar manatu badu, oraikuak edo azken elki denak txarrago, eta kala barra karkilaka supazterrian, aurrak eta aitag igaretzen tie laizki ongi neguko gabak.

PIPITAKIAK

Pipitakiak dra, erdaraz erraten drenak —Adivinanza—. Mutiko eta nexkato dosta, pipitakiala igaretzen die gogotik supazterrian gabak, gogotikago orañik elurrari badago.

Pipitaki bat errateko, beti lenik erraten da: *Pipitaki papataki, nik baitakit gauza bat.*

Pipitaki etc.: Ama zango makur, alabara eder, semea dantzari.

Pipitaki etc.: Aita beltz, ama latz, umia zuri.

Pipitaki etc.: Bi titiriti, laur tatarata, iztupa, muko eta ardatza.

Pipitaki etc.: Aitsoa burua urdin, etsaiak erman dik.

Pipitaki etc.: Xilua xiluan gañan?

Pipitaki etc.: Mintzak mintzan gañan?

Pipitaki etc.: Xurixko eta gorrixko da, pentsatzeko gaxtosko da,

Pipitaki etc.: Amiña xar bat ipurdian txostaka batekin.

Pipitaki etc.: Ardi mandika sabel, gaxtigar adar.

Pipitaki etc.: Astuan burua igaretzen, eta gari bikorra ez.

Pipitaki etc.: Laur andi batean pean, laur iturri.

Pipitaki etc.: Kon kon biribi. Kon kon bitibi.

Pipitaki etc.: Errekaxta marrakaxta txakur errabiatu.

Pipitaki etc.: Gizon txikin bat, irur gerrikorekin.

Pipitaki etc.: Bi aizpa beti aztaparkaka, eta sekula ez odolik egiten.